

Ibilgailu industrialetarako lehenbiziko KERS komertziala Gipuzkoan estreinatu da

- **Energia zinetikoa berreskuratzeko sistema (KERS, ingeleseko siglak direla eta) aurkeztu da Zumaian, euskal garraio enpresak utzitako autobusa erabiliz gauzatu da eMotion Dynamics eta Euskotren enpresen arteko lankidetzaren emaitza.**

eMotion Dynamics, S.L. enpresak, ibilgailuan integratutako KERS sistema daraman autobus artikulatu prototipoa aurkeztu du Zumaian, Euskotrenekin izan duen lankidetzaren hitzarmenaren emaitza. Horrez gain, proiektuak BIC GIPUZKOAREN laguntza izan du, *Txekintek/Ekintzaile* programaren barruan. Programa horrek laguntasuna eskaintzen dio oinarri teknologikoa duten enpresa berrien sorkuntzari, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRI – Eusko Jaurlaritzak, finantzatzen dute.

Energia zinetikoa berreskuratzeko sistema

KERS teknologia, ibilgailuak balaztak erabiltzean galtzen duen energia berreskuratzeko eta ultra kondentsagailuetan gordetzeko propulzio elektriko sistemaren erabileran oinarritzen da. Ondoren, energia hori ibilgailuari ematen zaio, azelerazioetan. Horri esker, ibilgailuaren erregai kontsumoa %15-25 inguru aurrez daiteke, ibilbidearen arabera eta, horrez gain, nitrogeno oxidoen eta partikulen isurketa murrizten da.

eMotion Dynamics enpresak garatu duen sistemaren abantailetakoa bat, ibilgailu berrietan zein lehendik daudenetan ezarri daitekeela da, eta horrek propulzio hibridoko teknologien ezarpen azkarrerako aukera ematen du, ibilgailu berriek duten kostu alturik gabe. Autobus hibridoak eta elektrikoak garrantzitsuak dira hiri inguruneetan isurketak murrizteko, eta Eurostatek emandako datuek erakusten dutenez, 2015ean 700.000 autobus inguru ari ziren lanean Europan; hala ere, horietako %0,34ak baino ez zeukan energia elektriko iturririk bere propulsiarako. Gaur egun, zifra hori %1etik behera dago oraindik. Ibilgailu horiek flotatan sartzeko prozesua motela da, duten kostua dela eta, eta kostu horren zergatia, teknologiaren eta merkatuaren heldutasun maila urria da.

eMotion Dynamics, garraio alorreko energia eraginkortasunean eta propulzio sistema elektrikoetan espezializatutako oinarri teknologikoko Gipuzkoako enpresa sortu berria da. Enpresak Euskotren Autobusa izenekoaren laguntza izan du, teknologiaren aurrean interesa eta proiektuan lankidetzan aritzeko borondatea erakutsiz, bere ibilgailuetako bat erabilerarako lagaz eta proiektua gauzatzeko bere instalazioen erabilera erraztuz.

Ekitaldian, David Arredondo eta Daniel Martínez eMotion Dynamics-eko sortzaileek; Antonio Aiz Azpiegitura eta Garraio Sailburuordeak; Imanol Leza Euskotreneko Zuzendari nagusiak, Martín Barbarias Euskotreneko Operazioetako Zuzendariak eta Unai Lazaro Euskotreneko Errepideko operazio eta mantentze Arduradunak hartu dute parte.

Lankidetzaren garrantzia

eMotion Dynamics enpresatik, "Euskotren bezalako garraio enpresa batekin lan egiteko aukera bikaina" azpimarratu dute, "KERS teknologia bere ibilgailu batean ezartzeko". Hasierako probak amaitu ondoren, emaitzek aurrezpenerako itzaropenak betetzen dituztela jakinarazi du enpresa teknologikoak, eta lorpen horren garrantzia azpimarratu du, "propulsio elektriko sistemen ezarpena ikuspegi ekonomikotik bideragarri bilakatzen duelako eta egungo floten eraginkortasuna hobetzeko aukera ematen duelako, zero emisioko ibilgailuetarako bidean tarteko pausoa izanik". Konpainiaren ikuspegia "teknologia aurreratua erabiltzea da, garraio industriaren erronkei aurre egin ahal izateko eta energia baliabideen erabilera eraginkorragoa lortzeko".

Antonio Aizek "lankidetzaren publiko-pribatuaren" garrantzia azpimarratu du, "kasu honetan Euskotren eta eMotion Dynamics artean, balio erantsia eman dezaketen berrikuntza proiektu esportatzaileak aurrera eraman ahal izateko". Horrela, azpimarratu duenez, "sistema honek, autobus diesel tradizional batean hibridaziorako aukera emango duen energia metatzeko gailua instalatzea ahalbidetzen du", energiaren kontsumoa murriztearen eta eredu iraunkorragorako bidea egitearen aldeko apustua egiten duten 3E2030 energia estrategiarekin eta Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako Garraio Iraunkorraren Plan Zuzendariarekin (PDT2030) bat datorren jarduketara. Aizek sistemaren hainbat alderdi nabarmendu ditu: "sistemaren eramangarritasuna, oso azkar munta/desmunta daitekeena; moldagarritasuna, autobusetan, kamioietan edo furgonetatan instalatzeko pentsatuta baitago; eta hiri arteko garraio autobusetan erabiltzeko bokazioa, ez hiri barrukoetan bakarrik".

Amaitzeko, bertaratutakoek, prozesu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRIk (Eusko Jaurlaritza) sustatutako "BIC Gipuzkoak" oinarri teknologikoa duen ekintzailtzari ematen dion "ezinbesteko laguntza" azpimarratu dute.